



3 EUSKARA

Euskalgintzaren eta gizartearen garapena, Argiaren eskutik

'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' izeneko jardunaldiak antolatu zituen Argia aldizkariak lehengo astean gure herrian. Takun Kultur Elkartearekin batera zenbait ekintza antolatu zituzten. Ostegunean Lasarte-Oriako euskalgintzaren bilakaera aztertu zuten Villa Mirentxun Mailu Arrutik, Pello Sasiainek eta Marga Iturrizak. Halaber, aste osoan zehar, Antonio Mercero aretoan 'Trantsizioak' erakusketa bisitatu ahal izan da.

3 KULTURA

Elebeltz Topaguneari babesa eskaini zioten larunbatean

Elkartasuna adierazi zioten Elebeltz Topaguneari egun osoko jaialdi baten bitartez. Goizean, Xumela abesbatzak eta Rezibatukadak kantujira egin zuten erdiguneko kaleetan zehar. Elikagai beganoak bazkaldu zituzten, eta ondoren Tony magoak emanaldia eskaini zien. Pelax, Gabezia, Hilotz, Rukula eta The Garax-azkenekoz- taldeen kontzertuekin gozatu zuten bertaratutakoek gauean.



Umorea eta bertsoa izan ziren "Berritsuketan bertso-tan" emanaldiaren ardatza. Larunbatean Manuel Lekuona kultur etxera gerturatutako herritarrek gau atsegina igaro zuten lehen mailako bertsolari eta bakarrizketariekin. Gaurkotasan handiko gaiak jorratu zituzten; batez ere, Lasarte-Oriarekin eta kulturarekin zerikusia dutenak. Formatu berritzaileak arrakasta izan zuten.

Bakarrizketak eta bertsoak izan ziren larunbat gaueko protagonistak Manuel Lekuona kultur etxean.

Beatriz Egizabalek gidatutako saioak umorea eta kultura izan zituen ardatz, baina gaurkotasan beste zenbait gai ere jorratu zituzten.

Andoni Egaña, Ane Labaka eta Maialen Lujanbio bertsolariak berritsuek jorratutako gaien gainean kantatu zuten.

Besteak beste, Donostia 2016 kultur hiriburutza eta bere eraginak, sagardotegi garaian egiten diren eraso sexistak, herentziak sortutako gatazkak eta kultur aniztasuna landu zituzten.

Adarjotzerako ere tartea izan zen. Adibidez, Lasarte-Oriaren eta Hernaniren arteko tirabiren inguruan kantatu zuten, Lujanbio hernaniarra dela baliatuz. Egañari, aldiz, gaztetan gandorrik ba ote zuen galdetu zioten.

Intza Alkain, Martin Anso, Mirentxu Egizabal, Mailu Arruti eta Bea Egizabal bera izan ziren auditorioa barre egitearazteko ardura hartu

Umorea bertsoak

Bakarrizketak eta bertsoak uztartu zituzten larunbat gauean



Saio borobila eskaini zuten Labakak, Egañak eta Lujanbiok.

zutenak. Mikel Bermejo ezin izan zen Manuel Lekuona kultur etxean egon, baina bideo bitartez bere bakarrizketarekin gozatu zuten ikusentzuleek.

Maratoia

Euskararen 9. Maratoia aurreko astean aurkeztu zuten, eta bideoklipa ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Aurtengo goiburua "Irten armairutik!" izanik, hizkuntzari dagokionez armairutik ateratzea zer den galdetu zioten Lujanbiori.

Euskararen inguruan lana egiten duten zenbait elkarteren urteurrena ospatzen dutela eta, Martin Ansok 'Zorionak zuri' hunkigarria eskaini zien.

Beste behin, bertso saio berritzailea osatu zuten denen artean. Aurtengo oinarria umorea izan da, aurrekoetan literatura, musika edo antzerkia izan ziren moduan. 2017an zer prestatuko ote duten galdezka geratuko ziren ikusle batzuk.



Lasarte-Oria 2017 kultur hiriburutzarako bere plana azaldu zuen Intza Alkainek.

HL4 HERNANI LANBIDE HEZIKETA
Gizarte Berrikuntzako LHII - CIPF Innovación Social

HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017 ikasturtea
AURREMATRIKULAZIOA
Ekainaren 6tik 17ra

ATE IREKIAK
KARMELO LABAKAN

ZATOZ edo DEITU!!

Maiatzak 21 11:00



Fabrikazio Mekanikoko diseinua

Animazio soziokulturala eta turistikoa

Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak

Elementu metalikoen fabrikazioa (A-D ereduak)

Mantentze-lan elektromekanikoak (D ereduak)

Mekanizazioa (B-D ereduak)

Instalazio elektrikoak eta automatikoak (A ereduak)

ERRAUSTEGIA

Txirrindaz erraustegiari aurre

Txirrinka ekimena Lasarte-Oriatik igaroko da larunbat eguerdian

Hego Euskal Herriko lurraldeak bizikletaz zeharkatuko dituzte asteburuan "AHT eta tokian tokiko proiektu txikitzaileen" aurka. Gipuzkoako zutabea Lasarte-Oriara larunbateko 13:00etan iritsiko da. Lasarteoriatarrek zubietarren eskutik hartuko dute testigua eta Hernani aldera eramango dute. Jakitera eman dutenez, ibilbide osoa egin nahi dutenentzat lo egiteko lekuak egokituko dituzte.

Txirrinka ekimenarekin bat egin du Aire Garbia plataformak. "AHT eta tokian tokiko proiektu txikitzaileak" salatu nahi dituzte Hego Euskal Herriko lurraldeak zeharkatuko dituen bizikleta martxarekin. Lasarte-Oriako kasuan, errauskailuaren aurka egingo dute bereziki.

Gipuzkoako ibilbidea maiatzaren 20an hasiko dute Hendaiako Santiago zubitik. Lasarte-Oriara 21eko eguerdiko 13:00etan iritsiko da, eta zubietarren eskutik hartuko dute Aire Garbiako kideek testigua Eusko Treneko geltokian.

Lasarteoriatarrek, ondoren, Hernanira eramango dute.

Ibilbide osoa egin ahal izango dute interesa dutenek. Ostiralean eta larunbatean lotarako espazioak jarriko dituzte, Antiguoko Txantxarreka gazte txean eta Urretxuko aterpe batean. Gosari eta afariak ere emango dituzte, baina izena eman behar izango da *ahtgelditu@ahtgelditu.org* posta elektronikora izena emanez.

Bergaran amaituko da Gipuzkoako Txirrinka igandeko 11:30ean.

Azaldu dutenez, tartek "edozeinek egiteko modukoak dira", zazpi edo zortzi kilome-



Erraustegiaren aurka azaldu zen herritar talde bat larunbat goizean.

trokoak gehienak. Erritmo motelean joango dira, eta nabarmendu dute "prestakuntza berezirik" ez dela behar izango.

Arriskuak jakitera emanez

Larunbatean erraustegiaren eraginei buruzko orri banaketa egin zuten Gipuzkoako herri askotan;

baita Lasarte-Oria ere, Aire Garbia plataformako kideen eskutik.

Hiru mezu zabaldu zituzten: erraustegiak minbizi arriskua areagotzen duela -Carlos III Unibertsitateko ikerketa bat aipatuz-, ikuspegi ekonomikotik begiratuta "lapurreta" izan dela, eta zaborte-giak ez direla "konponbidea".

Bide batez, hilaren 29an errauskailuaren kontra Donostian egingo den gizakatean parte hartzeko deia luzatu dute. Lasarteoriatarrei Easo plazatik Londres hotelerainoko tartea egokitu zaie, eta gutxienez 500 herritar bildu nahi dituzte.

Oreretako elkarbizitza esperientzia partekatuz

Errenteriako alkate Julen Mendozaren bisita jaso zuten Lasarte-Oriako EH Bilduko kideek pasa den astelehenen.

Elkarbizitzaren arloan Oretan egindako lanketa aurkeztu zuen Villa Mirentxun. Lasarteoriatarrek aste honetan beste bi batzar egingo dituzte, ikasitakoarekin zer egin erabakitzeko.

Mendozak 2012tik gaur arteko ibilbidea azaldu zien bertaratutakoiei, Udalaren esparrutik eragin daitezkeen arloak nabarmenduz: batetik, presoen auzia eta, bestetik, biktimak.

Indarkeriaren biktimei "oinarriko hiru eskubide" onartu behar zaizkie, Mendozaren



Julen Mendoza, Lasarte-Oriako EH Bilduko Pablo Barrio eta Leire Elizegirekin.

ustez: erreparazioa, justizia eta egia.

Azken horretatik hasi ziren eta dokumentu bat onartu zuten ordezkariak duten talde politi-

koek. Oretetako indarkeria gertakariak bildu dituzte, multzo ezberdinetan banatuz. Orain, erreparazioan eta justizian "lanean" ari direla azaldu zuen.

Errigorako kontserba loteak eskatzeko epea irekita, hilaren 24a bitartean

Nafarroa hegoaldean ekoiztutako kontserbak eskatu ahal izango dira Errigorak ikasurte honetan egingo duen azkeneko kanpainen.

Errigoraren hitzetan, "kalitate bikaineko" zazpi lote jarri dituzte eskuragai, euskaraz etiketatuak eta ekoizleak ezarritako jatorrizko prezioan.

Barazki-menestra, zainzuriak, barazki-krema, orburuak, potxak, tomate frijitua eta pikilo piperrak eska daitezke maiatzaren 24a bitartean.

Eskaerak, ohi bezala, AEK-ren eta Ttakun Kultur Elkartearen guneetan egin daitezke, baita Errigoraren webgunean ere.


Erosleek ekainaren 8an -16:00etatik 19:00etara- eta 9an -10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara- jaso ahal izango dituzte eskatutako loteak Errigoraren gunean -Goikale, 8-.

Errigorako lagunek nabarmendu dute olioaren kanpaina "arrakastatsua" izan zela. Izan ere, 5.000 familia inguruk eskuratu zuten urte osorako olioak.

Ekoizleen baturak dakartzan "onurak" goraiatu dituzte. Horrekin lotuta, datozen hilabeteetan konpromiso berriak hartuko dituzte ekoizleek. Horietako bat, webgune guztiak euskaratzea.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA

Elkartasuna kantuz adieraziz

Konpostelako Solfa abesbatzak Xumelako lagunak bisitatu zituen

Elebeltz Topaguneari babesa erakusteko jaialdia ospatu zuten larunbatean. Goizez, Xumela eta Rezibatukadaren arteko kantujirak herriko kaleak zeharkatu zituen. Galiziako Solfa koruaren bisita jaso eta elkarrekin abestu zuten. Gauean, berriz, kontzertuak.



Xumela, Solfa eta Elebeltzeko lagunak Okendo plazan ateratako talde argazkia.

TXINTXARRI

Solfa koru galiziarren bisita jaso zuten Xumela abesbatzako lagunak larunbatean. Goizetik girotu zituzten herriko kaleak Elebeltzeko Rezibatukadaren laguntzaz. Euskal kanta tradizionalak eta batukada erritmoen arteko nahasketa bereziarekin gozatu zuten herritar askok, euria alde batera utziz.

Galziarrak Albaolan izan ziren goizean eta eguerdi aldera iritsi ziren Lasarte-Oriara. Kuku-

kako dantzariak Geltoki kalean agurtu ondoren, Mikel Laboaren "Txoria txori" abestu zuten.

Okendo plaza eta erdiguneko kaleak alaitu zituzten, euskarazko eta galizierazko kantak abestuz.

Elkartasun jaialdia

Elebeltz Topaguneari elkartasuna adierazteko asmoz, jaialdia

antolatu zuten arratsaldean. Goizean lagun galiziarrekin eta Xumelarekin kantuan aritu ostean, bazkari beganoa prestatu zuten.

Behin tripak beteta, Tony Magoak magia erakustaldia eman zuen. Musikak txanda hartu zuen, ondoren; Pelax, Gabezia, Hilotz, The Garax eta Rukula taldeen kontzertuekin.



Eguerdian abesbatzak eta batukada izan ziren protagonista. Gauan berriz rock eta metal taldeak Elebeltzen.



HIRIGINTZA

Asfaltatze kanpainak, aurrera

Bihartik aurrera, Kale Nagusian hasiko dira asfaltatze lanak. Gaueko 22:00etatik goizeko 05:00etarako ordutegian arituko direla jakinarazi dute. Horiek amaitzean, datozenak iragarriko dituzte.

Azken asteetan, erdigunetako zenbait kaletako errepideak birasfaltatu dituzte. Lan hauen bitartez, egungo zoladura fresatuko dute, ondoren geruza bat zabalduko dute egunez. Behin behineko seinaleen bitartez, trafikoan sortuko diren norabide aldaketak bideratuko dituzte.

SAN PEDRO JAIK

Ekainaren 1ean hasiko dira nagusien danborradako entseguak

Lasarte-Oriako Danborrada Elkarteak jakinarazi du aurtengo San Pedro jaietako saiorako entseguak ekainaren 1ean hasiko dituztela. Ohiko lekuan –Sasoeta Ikastetxeko gimnasioan– arituko direla iragarri dute.

Festak iritsi bitartean, ekaineko astelehen eta asteazken guztietan entseatuko dute.

ERREFUXIATUAK

Gobernuari errefuxiatuen egoerari erantzuna emateko galdegin dio alkateak

Irailaren 8ko Udalbatzarrean adostutakoari jarraituz, Europar errefuxiatuek bizi duten egoeraren aurrean erantzun bat eman dezan galdegin diote jarduneko Gobernuari. Alkate Jesus Maria Zaballosek Mariano Raxoiri bidalitako gutunean azaldu dio Lasarte-Oria aterpea emateko prest dagoela.

Hala, Espainiako Gobernuari eskatu zaio gure herriari dagozkion errefuxiatuei aterpea emateko kudeaketak hasi ditzala. Bestalde, adierazi dute "ulertzen" dutela gaiaren lanaketak duen "zailtasuna", baina gogoratu dute Espainiako Estatuak soilik 18 errefuxiatu jaso dituela akordaturako 17.680etik.

UDAKO TXOKOAK

Udako txokoak prestatzeko bilera parte hartzailea ostegunean

Uztaileko eta abuztuko Udako Txokoak antolatzeko bilera deitu dute hurrengo ostegunean, hilaren 19an. 17:30ean hasiko da anbulategiko bigarren soilaruko bilera gelan.

Saio parte hartzaileak izango direla iragarri dute. Horregatik bai gurasoen baita haurren agertzea eskertuko dute. Besteak beste, aurtengo Udako Txokoetan zein balio eta oinarri landu nahi diren eztabaidatuko dute, horretarako egokiak izan daitezkeen ekintzak identifikatuz.

Euskalgintzaren eta gizartearen garapena aztertzen

Lehengo astean Argia aldizkariaren eskutik, Lasarte-Oria eta Euskal Herriaren garapenari buruz hausnartzeko tarte izan zen 'Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak' ekimenari esker.

Lasarte-Oriari dagokionez, ostegunean euskalgintzaren historia aztertu zen Ttakun kultur elkarteak eta Argia aldizkariak elkarlanean antolatutako 'Lasarte-Oriaren euskararen bila-kaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko' mahai-inguruan.

Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan bildu ziren herritarrek Pello Sasian Euskara Batzordeburu ohiaren, Mailu Arruti Landaberriko ikasle, AEKko arduradun eta Ttakun elkarte-ko lankide ohiaren eta Marga Iturriza Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakasle eta zuzen-



Lasarte-Oriako euskalgintzari buruzko mahai-inguruaren uneetako bat.

dari ohiaren esperientziak entzun ahl izan ziren. Solasaldia zuzentzen Onintza Irureta Argiako langilea izan zen.

Besteak beste, Estatuko beste lurraldeetatik lan bila etorritako jendearen ondorioz, Lasarte-Oriaren hedapen geografikoa, ikastolak irekitzeko izan ziren arazoak, eskola

publikoan eman behar izan zen eraldaketa, gau eskola eta AEKren lehen pausoak edo azken urteetan hizkuntzaren ezaguerak izan duen gorakada gogora ekarri zituzten hizlariak.

Mahai-inguruan Iñaki Arruti Euskara Batzordeko zuzendaria zegoela baliatuz, gaur



Herritarrek Antonio Mercero aretora hurbildu ziren 'Trantsizioak' erakusketa ikustera.

egungo datuak ere entzun ahal izan ziren. Euskararen ezaguerari haur eta gazteetan handia dela, baina honen erabilera batez ere gazteetan bermatua ez dagoela azpimarratu zuen Iñaki Arrutik.

Horren ondorioz, entzuleen eta mahai kideen arteko solasaldia egon zen.

Euskal Herriaren garapena

Bestetik, Antonio Mercero gunean 'Trantsizioak' erakusketa zuzenarekin gozatu ahal izan dute herritarrek.

Honetan, azken 40 urteetan izan den garapen eta eraldaketa sozio-politikoak azalarazten da irudi eta hainbat testuren bidez.



Lanbide heziketa, euskararen bidean

**Koldo Ulanga Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxeko irakaslea da. dabilen elkarte. Garrantzia handikoa da, gaur egun Arabako, Biz-
Eta lantoki duen Usurbilgo ikastetxean bertan kokatzen da Laneki, kaiko eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak
Euskadiko lanbide heziketa ikastetxeetan euskararen alde lanean (Ikaslan) eta kontzertatuak (Hetel) bere baitan biltzen dituelako.**

Koldo Ulanga andoaindarra Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxe publikoan euskara batzordeko dinamizatzailea da. Berekin izandako solasaldian, hasteko eta behin euskararen aldeko egitasmoetan talde lanak duen garrantzia nabarmendu nahi du: "Euskararen aldeko lana ez dut nire helburu modura hartzen, taldearena baizik. Euskara batzordean sei kide gara, ikastetxearen atal bakoitzeko ordezkari banarekin. Eta, noski, funtsezkoa da irakasleen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen inplikazioa. Denon parte hartzerik gabe, jai dugu".

Lanbide Heziketako ikastetxeak euskararen bidean garapen handia izan du, behar eta zailtasun beretsuak dituzten beste ikastetxe askok bezalaxe. Horiek guztiak Laneki elkarteko kide dira, behar handiei erantzuteko sortu zena: "Bere garaian lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko zeuden hutsuneak osatzeko sortu zen. Nabarmenena, ikas-materiala. Zorionez, sektore publiko eta pribatuko ikastetxeak elkartu gara. Euskara ez da gure artean bereizteko erabili behar den arma bat, baizik eta denon artean pauso txikiak emanez normalkuntzan aurrera egin genezan. Euskara gu guztiok batzen gaituen faktorea da".

Ikasleen praktikaldia euskaraz bideratzea izan da Lanekiren erronkatarikoa. Berriki, behar hori asetzeko Lanpres izeneko gida argitaratu dute. Sorburuaren berri ematen du Ulangak: "Euskaraz ikasi arren, praktikak egiteko garaian erabilitako hizkuntza gaztelania izaten zen. Beste elementu batzuk lehenesten ziren: Enpresaren estiloa, ikaslearen perfil teknikoa... azken sasoiaren kontzientziazio lana egiten ari gara euskara faktore eraginkor horietakoa izan dadin. Gidak horretan lagundu nahi du, genuen kezka horri erantzuteko tresna bat da".

Lanpres gidak zehazten duena betetzeko eragile guztiek parte hartu behar dute: Alde batetik, praktikaldian dagoen ikaslea eta bere



Koldo Ulanga andoaindarra, lantoki duen Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxean.

ikastetxeko tutorea, lan praktiken koordinatzailea eta euskara batzordeko koordinatzailea. Beste aldetik, enpresako hezitzailea. Gidari jarraiki, praktikaldiaren jarraipen zehatza egiten da, ebaluazioa eta guzti. Gidak izan duen abiapuntua garrantzia berezia du Ulangarentzat: "Aurkezpen ekitaldia Euskaldunak egin zen eta bertan izan ziren Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburu-ordea, hiru Foru aldundietako euskara zuzendariak, Lanbide Heziketako burua eta baita hainbat enpresari ere. Denen beharra dugu, botere publikoena eta enpresa pribatuena".

Buruntzaldean urrats bat aurrerago doaz. Euskadi mailan Lanpres gida txertatzen doan heinean, horren ondortik eskualdean osagarria den egitasmoa sustatzen ari dira Buruntzaldeako udalak. Praktikaldia egingo duen ikaslea, ikastetxeko tutorea eta enpresa, hirurak, murgildu dituzte egitasmoan, jarraipena eta baliabideak eskainiz lantokiko presakuntza hori euskaraz burutu dadin. Aurten bi ikasle ari dira egitasmo horretan, Mendiola eta Euskabea enpresetan praktikaldia eginez.

Koldo Ulangaren lan bizitzaren heziketara lotuta egon da. Eskarmentuak ematen dion ikuspegiarekin, zuhur hitz egiten badu ere, baikor izateko bi argudio nagusi eskaintzen ditu. Lehena, erakunde artean ematen ari diren sinergiak: "Ikastetxeoi euskararen sustapenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saletik ordu lektiboak eskaintzen dizkigute, FPko idazkaritzatik babes osoa, Laneki elkarte lanean ari da, baita Buruntzaldeko udalak ere. Eta azken urteetan Foru Aldundia batu zaigu. Horiek guztiak norabide berean jartzen ari gara, eta horrek etorkizuneko egitasmoetan garrantzia handia izango du".

Bigarrena, azken hamarkadotan euskarak izan duen garapena: "Gurea hizkuntza minorizatua da, eta oraindik ere lan asko dago egiteko. Baina nire esperientzia pertsonala hartuta, aldaketa handia eman da. Ikasten nengoenean lanbide heziketa erdara hutsean eskaintzen zen. Irakasle euskaldunak topatu zitezkeen, baina dena erdaraz egiten genuen. Orain, bere mugekin, euskaraz ikasteko aukera dago. Ikastetxea euskara hedatzeko oso tresna baliagarria izan da". Edalontzia erdi bete ikusten duen horietakoa da Koldo Ulanga.

Etekin handiko zikloak

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxe kontzertatua "ETHAZI Etekin Handiko Zikloak" heziketa ekimen berritzaile batetan burubeltarri dabil, zeinean euskarazko ikasleak onuradun bilaka daitezkeen. Ikastetxea bide berriak urratzen ari da Euskadiko beste lau ikastetxerekin batera (horietatik hiru publikoak, eta beste bi kontzertatuak). Jokin Egurbide irakasleak xehetasunez azaltzen du egitasmoa: "Ikasleei ez diegu temarioa banatzen. Arazoak dira mahai gainean jartzen zaizkionak, eta ikasleek arazo horiei irtenbidea emateko beharrak identifikatu behar dituzte. Behar horiek menderatzeko ikasketa batzuk egin behar dituzte, eta beraz formakuntza beharren arabera lantzen da. Talde lanean egiten da hori guztia.

"Erakunde guztiak norabide berean jartzen ari gara, eta horrek etorkizuneko egitasmoetan garrantzia handia izango du"

Ikasturte honetan taldeak egiteko garaian irizpideen artean hizkuntza ipini dugu. Beraz, gela berean bost euskaldun topatuz gero, bost horiek talde berean egongo dira. Hartara, ikasturte osoan euren hizkuntza euskara izango da. Talde horren funtzionamendua, beraz, D ereduakoa da.


Gela osoa kontutan hartuta, demagun 23 ikasle euskaldun daudela eta beste 2 erdaldun. Bi horiekin talde bat osatuko dugu. Horien funtzionamendua A ereduakoa litzateke, eta gainerako guztia D ereduakoa da.

Dagoeneko La Salle Berrozpera Euskadi osoko irakasleak hurbiltzen ari dira, sistema horren garapena gerturik ezagutzeko. Aurreko astean, esaterako, 60 irakasle egun osoko jardunaldia egin zuten Andoainen. Denborarekin, ETHAZI Euskadi osoko lanbide heziketan txertatuko den sistema izango da. Ikasleen euskarazko trebakuntza bermatzeko abantaila izango da.




Jokin Egurbide La Salle Berrozpe ikastetxeko irakaslea.

HIZKUNTZA EREDUAK ZIKLOZ ZIKLO




DBH

2015-2016 IKASTURTEA
A ereduak B ereduak D ereduak
%0,0 %5,80 %94,20




BATXILERGOA

2015-2016 IKASTURTEA
A ereduak B ereduak D ereduak
%7,20 %5,40 %87,40



LANBIDE HEZIKETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA
A ereduak B ereduak D ereduak
%37,80 %31,40 %30,80



LANBIDE HEZIKETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA
A ereduak B ereduak D ereduak
%45,40 %20,40 %34,20



2016 / 2017

11 aukera, 11 Lan

Lanbide Heziketan ERE D eredua

Ziklo AUKERA zabala duzu Buruntzaldean eta inguruko eskualdeetan:

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
 - SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK
 - FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
 - GIZARTERATZEA
 - BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
 - ESTETIKA ETA EDERGINTZA
-eta askoz ere ziklo gehiago

www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)
www.hetel.org (ikastetxe pribatuak)

Asko duzu IRABAZTEKO:

- Ikasketak euskaraz jarraitzeko aukera duzu.
- Prestakuntza osatuagoa jasoko duzu.
- Herri honetako bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko gaitasuna izango duzu.
- Ikasketak euskaraz eginez gero, euskararen jakite-mailaren baliokidetzak ziurtatuko dituzu, azterketarik egin gabe:
 - erdi mailako zikloetan: B-1
 - goi-mailakoetan: B-2



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

www.buruntzaldea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

ARETO-FUTBOLA.

Gehiegizko zigorra herriko areto futbol taldeentzat

ISU Lechioak-ek eta Cecilia Kebab Ostadarrek penaltietan galdu zituzten finalak

Penalti jaurtiketa errondek ez dute jarraitzen inolako logikarik. Larunbatean Gipuzkoako areto futboleko finalak lehiatu zituzten bi taldeek hala galdu zituzten haien partidua. Lehenengo mailako finalean 3-1 aurretik jarrita, ezin izan zion aldeari eutsi ISU Lechioak taldeak. Cecilia Kebab Ostadarrek, aldiz, hutsean berdindu zuen bigarren mailakoa. Hala ere, igoera lortu dute.

TXINTXARRI

Azkenean ez zen txapeldun lasarteoriatarrik izan. Larunbatean Aretxabaletako Ibarra kiroldegian jokatu ziren Gipuzkoako areto futbol lehiaketako finalak, eta gizonen lehenengo eta bigarren mailatan herriko taldeek ordezkari izan zuten. Partiduak berdindu zituzten biek, eta ezin izan zuten penaltietan garaipenik lortu.

Igoera Ostadarrek

Nahiz eta garaipenaren bidean motz geratu, lehenengo mailan lehiatuko da Cecilia Kebab Ostadar 2016/2017 denboraldian.

Ondo ekin zioten Power Rangers taldearen aurkako finalari Edu Menaren mutilek, intentsitatez, balioa azkar mugituz eta presioa ongi egi-

nez. Aukerak izan zituzten lehen minutuetan, baina ezin izan ziren markagailuan aurretik jarri. Lehen zatia amaitzek zela, aurkariak gerutuago izan zuten gola.

Bigarren 30 minutuak hobetu hasi zituen Power Rangers taldeak. Oartzuarrek hiru aukera garbi huts egin zituzten Josuren ate aurrean. Finalaren azken txanpan urdinbeltzek berriro ere partiduen nagusitasuna eskuratu zuten; golik lortu gabe, ordea.

Gauzak horrela, penalti puntutik erabaki zen Gipuzkoako bigarren mailako txapelketa. Power Rangersek hiru penaltiak sartu zituen, eta Ostadarrek bat huts egin zuenez, hor amaitu zen norgehiagoka.

Ezin eutsi ISUk

Pescados Ferreres pasaitarrak izan zituzten aurrean Eneko

Molinaren mutilek. Lehen minutuetan bi taldeek eduki zituzten aukerak, baina aurkariak aurreratu ziren. Atsedena iritsi bitartean markagailuari buelta ematea lortu zuen ISUk, Alvaro Benjumearen bi golekin. Bigarrena atsedena hartzeko bost segundu falta zirela.

Bigarren zatiari sendo ekin zioten lasarteoriatarrek. Benjumeak berak aldea ireki zuen kalitate handiko gol baten bitartez.

Hamar minuturen faltan, Pescados Ferreresek atezain-jokalaria atera zuen eta hori izan zen berdinketaren gakoa. Hirunakoarekin penalti jaurtiketetan erabaki zen finala.

Hirutik bi sartu zituzten ISU Lechioak-eko jokalariek, eta pasaitarrak ez zuten hutsik egin. Hala, lehenengo mailako txapeldun irten zen Pescados Ferreres.

Eneko Molinak zuzentzen duen taldeak egindako partidu bikaina aitortu zuen antolakuntzak. Izan ere, Lander Martin kapitainak eskuratu zuen finaleko jokalaria onenaren saria. Dena den, ez dira horrekin konformatuko, eta datorren urtean kopa etxeratzeko aukera berria izango dute.



Finala galdu arren, igoera lortu du Cecilia Kebab Ostadarrek.



ISUk ezin izan zion eutsi 3-1eko markagailuari.

TXEMA VALLÉS

PIRAGUISMOA.

Maialen Chourraut seigarren Europako txapelketan

Sentsazio gazigozoeekin bukatu zuen Maialen Chourraut herritarrak Europako slalom txapelketa. Seigarren postuan amaitu zuen, eta adierazi zuenez "pozik" zen finala lehiatzeagatik, baina aldi berean "triste" jauzi batean egindako "akatsarengatik".

Ez du txapelketa xamurra izan bakarkako K1 modalitatean Chourrautek. Hamazazpigarren izan zen sailkatze fasean, eta bere esanetan "ozta ozta" sailkatu zen finalera.

Finalean Melanie Pfeifer alemaniarrarengandik 3.88 segundura helmugaratu zen; sailkapen nagusian seigarren.

Zortzigarren taldekakoan

Taldekako txapelketan, Irati Goikoetxeak, Marta Martinezek eta Chourrautek berak osatu zuten taldea zortzigarren izan zen, urrezko domina ira-



Taldekakoan zortzigarren izan dira Chourraut, Goikoetxea eta Martinez.

bazi zuen Britania Handiko taldeak baino 15.29 segundu motelago iritsi baitziren.

Riora begira

Eslovakiako Liptovsky hirian jokatutako Europako txapelketan dominarik eskuratzeko lortu ez duen arren, denboraldiko erronka nagusia udaran

etorriko da.

Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan lehiatuko da beste behin Chourraut. 2012an Londonen brontzezko domina irabazi zuen lasarteoriatarrek. Zaila izango du balentria errepikatzea, baina ilusioz ekingo dio erronkari, ziur.

PILOTA.

Lasarte-Oriak ezin izan zuten Bergara gainditu Herriarteko txapelketako final hamaseiretan

Lasarte-Oriak 2-1 galdu ostean, balentria egin behar zuten pilotari lasarteoriatarrek txapelketan aurrera egin ahal izateko. Bergaran, berriz, ez zuten garaipenik lortu ostiralean.

Kanporaketa goiz okertu zen. Julen Urruzola eta Alex Etxeberria kadeteek Mitxelinen 20-22 galdu zuten, eta bueltakoan irabaztea garrantzitsua zen final zortzirenetan egon ahal izateko. 22-8 irabazi zuten azkenean Ander Etxaniz eta Alex Roig bergararrek.

Gazte mailan, berriz, Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola 22-1 garaitu zituzten. Emaiza horrekin, talde lasarteoriatar txapelketatik kanpo geratu zen matematikoki. Izan ere, gutxienez bi partidu irabazi behar zituzten aukerak izateko.

19-11 aurretik jarri ziren senior mailan Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola. Aritz Rezustak eta Eneko Muguruzak ez zuten amorerik eman eta buelta eman zioten norgehiagokari, 22-20 irabaziz.



Aurtengo Lasarte-Oriako Herriarteko pilota taldea.

Agenda

Asteartetik larunbatera, Lasarte-Oria



Energia ongi erabiltzen ikasteko astea

Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astea antolatu dute Lasarte-Oriako Udalak Usurbilgo Lanbide Eskolak elkarlanean. Hitzaldiak izango dira nagusi astean zehar. Gaiak fatxaden isolatzea, faktura elektronikoa eta elektrizitatea eta berogailuen kontsumoa dira gaiak. Larunbatean energia feria izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 17, 17:00etan

"Eraikinetako fatxaden isolatze eta birgaitzea" hitzaldia. Usurbilgo Lanbide eskolako zuzendariorde Oier Aran-zabalek Enegur eraikin berria aurkeztuko du.

Asteazkena 18, 18:00etan

Faktura elektrikoa nola irakurri ikasiko dute herritarrek Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatibako kide Alex Lopezen eskutik.

Osteguna 19, 18:00etan

Elektrizitatea eta berogailua modu

eraginkor batean erabiltzeko aholkuak emango dituzte Luis Mari Carballo eta Gorka Apaolazak.

OKENDO PLAZA

Larunbata 21, goiza osoa

Energia feria izango da ikusgai.

12:00etan, Faktura elektrikoaren azalpena GOIENERen eskutik.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Larunbata 21, goiza osoa

Landaberi DBH4ko ikasleenk Usurbilgo Lanbide Eskolara egindako bisitarren argazkiak ikusgai.

Lasarte-Oria

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 17, 18:30ean

Irakurle Txokoko lagunek Danele Sarrugarte eta Unai Villena idazlearen laguntzaz, 'Hauts hailetatik' liburua aztertuko dute.



Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 21, 20:00etan

SuBerri akordeoi taldeak eta Tutik Clownsek umorea eta musika uztartuko dituzte ikuskizun magikoan. Sarrera doakoa.



II. Dantzari eguna egingo da. Andoaingo Urki dantza taldea eta Faltzeseko Makaia taldeak parte hartuko dute. Lasarte-Oriako kaleetatik desfilea eta emanaldia izango dira.

Dantzari Txiki Eguna

LASARTE-ORIA

Igandea 29, goiza

Erketz EDT-k antolatzen duen, 28. Dantzari Txiki egunean, Euskal geografiako sei taldek auzo ezberdinak alaituko dituzte.

OKENDO PLAZA

Igandea 29, arratsaldean

Dantza taldeek alarde txiki egingo dute Kale Nagusian zehar eta ostean, emanaldia eskainiko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleen lanak aurkeztuko dituzte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Astelehena 30- Ekainak 11

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Hernani

Astigarraga

IKASTOLAKO ARETOA

Asteazkena 18, 18:30ean

Ana Azkona Arzelus psikopedagogoa 'Genero ikuspegia gaur egungo eskolan' hitzaldia eskainiko du.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 21, 11:00etan

Erraustegiak osasunean dituen eragin kaltegarrien testigantza. GuraS.O.S. plataformak antolatutako hitzaldia.

Dantzari Eguna

OKENDO PLAZA

Larunbata 28, 18:15etik aurrera

Lasarte-Oriako Erketz EDTren eskutik,

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Italiara bidaiak

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Hemeroteka

Duela 1.217 ale

Energiaren kontsumo jasagarria ardatz hartuta, hainbat ekitaldi eta hitzaldi entzun ahalko dira herrian aste honetan, Udalak eta Usurbilgo Lanbide eskolak antolatuta. Jasangarritasuna eta ingurugiroari buruzko kezkek ez dira berriak, ordea. TXINTXARRIK duela 1.217 ale argitaratu bezala, 'Ingurugiro jardunaldiak' antolatu ziren 1998ko ekainaren 1etik 7ra bitartean. Ingurugiro Heziketa programa bat prestatu zuen Hezkuntza eta Eskola Plangintza Batzordeak; Lasarte-Oriako ikastetxeetako – Sasoeta-Zumaburu, Oztaran eta Landaberi, garai horietan– 5. eta 6. mailako ikasleek hartu zuten parte horretan.



Lau gai landu zituzten gazte-txoek: ur-errekaren azterketa, zaborrak eta birziklatzea, kaleen azterketa eta landaretza. Urtean zehar egindako lanarekin, erakusketa antolatu zuten Manuel Lekuona kultur etxean, ekainaren 1etik 7ra. Beste zenbait ekintza ere antolatu ziren Ingurugiro Jardunaldi horietan: San Markos zabortegira bisita, Arrillaga baserrira txangoa, Greenpeace erakundeko kideen eskutik 'Basoak, garrantzia ekologikoa eta arazoak' hitzaldia, 'Lasarte-Oriako hiriguneko landaretza' solasaldia Joxe Kruz Labaka herritarren eskutik eta 'Mugamundu' txotxongilo emanaldia kultur etxean, programan parte hartu zuten 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutakoa.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Herriko txikiak gozatu egin zuten Loidibarren frontoian jarritako puzgarriekin.



Jende ugari atera zen kalera ostiral arratsaldean.



Txapak egiten ikasteko aukera ere izan zen.

Udaberria ospatuz

Herriko merkatariek Udaberri Festa ospatu zuten ostiralean

Kolorez jantzi zen ostiralean Lasarte-Oria. Udaberri Festa baliatuz, herriko saltoki eta taberna askok ekintza eta deskontu bereziak prestatu zituzten. Herriko ikastetxeetako haurrak beraien marrazkien bila ibili ziren, eta aurkitu zutenek opari batekin etxeratu ziren.

TXINTXARRI

Ostiralean ospakizun berezia egin zuten herriko merkatariek. Aterpeak eta Lasarte-Oriako Udalak Udaberri Festa antolatu zuten, urtaroa bertan dela ospatzeko asmotan. Eguraldiaren iragarpenak ez ziren oso onak, baina eguzkiak, azkenean, ez zuen festa galdu izan nahi.

Herriko komertzio askok deskontu eta eskaintza bereziak aplikatu zituzten. Hala ere, kaleak alaitu zituzten kalejirekin, batukadarekin eta haurrentzako puzgarriekin.

Marrazkiak dendetan

Herriko umeek Lasarte-Oria-

ko txoko kuttunenak marraztu dituzte, eta saltokietan jarri dituzte erakusgai. Asteazkenean, euna aurkitzen zutenek opari berezia jaso zuten.

Guztira, 915 marrazki bildu zituzten, 37 saltoki eta tabernetan banatuta.

Tailerrak

Merkatari batzuek tailerrak antolatu zituzten herriko txikiakentzako. Ormazabal loradendak lorigintza ekintza prestatu zuen gerturatu ziren haurrentzako.

Ola markoztatze dendak marrazkiak egiteko txokoa egokitu zuen, eta hiru oneneko markoa oparitu zien. Olmi mertzeriak, bere aldetik, jos-

keta tailerra antolatu zuen, ume eta helduentzat. Kattagorri jolasdendak ere txikiakentzako gunea egokitu zuen, eta plazan jolasean ziren ume ugari gerturatu ziren marraztera eta txapak egitera.

Festa giroa

Asteburu gogoz ziren herritarrek eta Udaberri Festak jarritako giroarekin arratsalde atsegina igaro zuten.

Dinbi Banda kalejirak herriko kaleak astindu zituen arratsaldean, eta Oaintxe In Deu txaranga Arkupe taberna ingurua girotu zuen afalordua iritsi aurretik.

Haurrentzako puzgarriak jarri zituzten Loidibarren frontoian. Juan XXIII eta Isla plazetan jartzekoak ziren hasiera batean, baina euria egiteko aukera zela eta, estalpera eramateko hautua egin zuten antolatzaileek. Dena den, haur eta gurasoz bete zen frontoia.

Lasarte-Oria kontakt dantzaren topagune

Kontaktuaren eta elkar ekin-tzaren bitartez inprobisaziozko dantza da Kontakt Inpro. Jatorri anitzetako dantzari ugari gerturatu dira asteburuan Lasarte-Oria Euskal Herriko Kontakt Inpro III. Topaketara.

Ostiral arratsaldean iritsi ziren dantzariak Sasoeta ikastetxeeko gimnasioa. Bertan egin dituzte asteburuko ekintza gehienak. Elkar ezagutzeko ekintzen ostean, lehenengo 'jamak' dantzatu zituzten.

Malen Posseren 'Slow motion' eta Alba Ajaren 'Tximelen emanaldiek hasi zituzten larunbateko dantzak.

Bazkalostean, Euskal Herriko Kontakt Inpro Elkarteak asanblada orokorra egin zuen. Behin amaituta, Amaia Lope-



Ekintza gehienak Sasoeta Ikastetxeeko gimnasioan egin arren, igande eguerdian performance-a egin zuten Okendo plazan.

zek 'Itsua' dantza aurkeztu zuen.

Egunari amaiera egokia emate bidean, Jalgi kafe antzokian antolatutako festan aritu ziren dantzan nekatu arte.

Andoni Mutiloaren 'Zentro-

tik periferiara' emanaldiarekin hasi zuten igandea. Lehen aldiz, Lasarte-Oriako kaleetan dantzatu zuten eguerdian.

Prozesio ixil batean Okendo plazara abiatu ziren. Bertan zirkulu handi bat osatu eta



inprobisazioari ateak ireki zituzten. Eguraldia lagun izan zuten, eta kalean zeuden herritar ugari ikusmiraz jarraitu zuten dantza saioa.

Antolatzaileek azaldu zuten, leku askotako dantzariak

etorri ziren Lasarte-Oriara. Euskal Herriko txoko askotatik gerturatzeaz gain, Toulouseko, Kataluniako eta Gijoneko jendea izan dugu herrian. Harremanak estutu dituzte, hurrengo batean bisita bueltatu ahal izateko.